

Aiherra

6 janvier 11

Mus xapelketa Attatean, urtarilaren 22an hasten

Aurtengo Mus xapelketa, laster hastera doa. Orroitz izenak urtarilaren 15eko eman behar direla, eta larunbat arratsetan, urtarilaren 22tik goiti mus haitadak Attatea ostatuan eginen direla. Izenen emaitako, deitu Attateira 05 59 29 64 23ra, edo Jaki Biscay (05 59 29 43 63) edo Pette Ospital (06 71 41 82 75), ez baita oraino berantegi.

Bestalde, nola joan den urteko Frantziako xapeldunak bai eta Munduko xapeldun ordeak Mendiondo aihertar anaiak ziren, ez da dudarik aurtengo xapelketak ere Aiherran arrakasta izanen duela. Parioa libro !

«Goiti Aire» koen biltzar nagusiaren ondotik

«Goiti Aire» 3. adinekoen elkar-teak, bere urteko biltzar nagusia egin du abendoaren 20an, Denen Etxeko gela tipian. Orotar 55 bat lagun ziren.

Hoin nonbre haundian etorri kideer, bai eta J-Paul Basterretche jaun auzapezari eta Mayie Leproux departamenduko 3. adinekoen elkarteko lehendakari ordeari ongi etorri egin ondoan, batasun huntako Jean-Pierre Sainte Marie lehendakariak urteko harat hunaten berri eman du. Bulegoko 3 kide baitziren arraberritzeko, 3ak berriz hautatuak izan dira, hauiek dira Domingo Etcheverry, Jamatit Sabaloue eta Mayi Larre. Mayi Minjou diruzainak urteko konduen berri eman ondoan, lehendakariak

elkarte guziaren izenean 2 biko-te nahi izan ditu goretsi, aurten beren urrezko etzeiak ospatu baitituzte : hauiek dira Jean eta Marie Jeanne St Martin Gandaramendikoak, eta Jean eta Lina Tapia Harambiletakoak.

Gero, denak joan dira Auxotea ostatura, han mahain on baten ingurian segitu dutelarik eguna, ixtorioak kondatuz ta kantu zombeit xaramelatuz, hots omore onean.

GOITI AIRE elkarte huntan oraino sartiak ez diren 3. adinekoer, horgo arduradunek dei bat bihurtzen diete, orroitaraz oraino sartzen ahal direla eta ongi etorri izanen dutela.

Urte Berri On, osagarri on batekin !

Irakurle guzier, herritarer ala urrunetik Herria astekari hunen bidez hemengo berriak segitzen dituztenez, berriketarier eta astekari huntako langiler, desiratzen diegu urte berri on, eta ahalaz zorionsua.

Penetan diren familier, eritasunak, presondegiak ala heriotzak jo dituen familier, kuraia on eta atxik dezatela esperantza !

«Sakratua» ikusgarria, apirilaren 2an

Hazparneko elizan berrikitan SAKRATUA ikusgarrian parte hartu dutenek ez dute laudoriorik baizik egin emanaldi huntaz. Hutsegin dutenak, orroitz ditela apirilaren 2an, Aiherrako elizan ikusten ahalko dutela. Berantxa-goa aipatuko dugu.

Aiherra

13 janvier 11

Trinketa arraberriturik

Badu aspaldi obrak hasi zirela Gaztetxea trinketean. Joan den urtean estrenatu beharra zen, eta ofiziale batzuekin nekeziak izanik, zola 3 aldiz arra hasi dute, eta azkenean iduri du kausitu dutela. Teilatuko plaka batzu haatik kanbiatu beharrak omen dituzte oraino, itaxurak baitira teilat berrian, euria denean.

Horiek hola, joan den larunbat eta igandean izan da mugimendu Gaztetxean, sareko finalerdia hor jokatu baitira, Euskal Herriko Pilota Ligak antolatuta xapelketaren kondu. Eta, aini-tzentzat parada izan da lehen aldikotz trinket arras berrituan sartzeko, gibebeko berinezko murruren preziazteko, hots trinket berriaren ezagutza egiteko. Gaztetxea trinketean, berriz pilotan ar dilaik hemendik goiti. Hobe segur !

Larunbat eta igandean, sareko finalak

Sare jokoa ezagutu nahi duenak, larunbat eta igandean parada izanen du Aiherrako trinketean, pilotari hobereenen ikusteko. Euskal Herriko xapelketako finalak izanki eta, munduko xapelketan parte hartu izan duten sareko pilotari hoberenetarik ikus dilaizke hor. Larunbat arratsaldean, 4etarik goiti, junior mailan, Amikuztarren arteko finala, 5etan paletaren aldi, Garzatarak Urruñarren kontra, eta 6etan, Lopetegi eta Funosas Hazpandarrak, Hardoiarrak Angelu-ko Driollet eta Sistiaguak kontra. Igandean aldiz gazteen aldi arratsaldeko 2ak 1/2tik goiti. Itzuli baten egitea balioko du. Larunbatarekin, sartzea 10 eurotan, eta igandean urririk. Abarratia pilota batasunak edariak salduko ditu joan den asteondarrean bezala. Ongi etorri deneri !

10



Herria du 27 janvier 2011

Aiherra

Lunetak edo betaurrekoak Madagazkarrera - Hirugarren adinekoek jakinarazten dute joan den urtean egin zuten bezala, aurten ere baliatzen ez diren edo soberakin diren luneten edo betaurrekoen bilketa bat eginen dutela, Madagazkar ugartera igortzeko.

Zuen emaitza J-Pierre Sainte Marie Xedarrikoari helarazten ahal duzue, hilabete hunen ondarreko. Nahikaria da urrats ximple hau eginez gure soberakinekin, bixta guti edo txarra duten hango anai arreber iguzki pixka baten ekartzea, hots gutiz kontent den jendeari. Azken epea otsailaren 3a da, hirugarren adinekoen biltzar nagusi eguna. Aitzinetik eskerrak !

SOS Laborari-ren deia - Joan den asteko abisuaz orroitz ! SOS Laborari elkarteak galdatzen du bere laborari partaideer, urte sariak ahal bezain laster pagatzea Aiherrako Pascal Minjou Etxebazterrekoari edo J-Marie Dartaguiette Etxaikoari, berantiaz urtarilaren 31ko. Abisu hau entzuna izan dadila !

Xebax CHRISTY kantonaletan hautagai ! - Herritar gazte bat aurkezten zaukula martxoko bozetan, hain xuxen Bastidako kantonaleztat, horra aste hun-

tako berria. Orain arte CAS-TAING jauna dugu gure kontseilari orokorra eta departamendu hunen nagusia. Osasun enegak izan baditu ere, nahiz eta kontseilari orokorretako xaharrena den, berriz presentatzeko gogoia duela jakinarazia du. Parean izanen duen herritar hautagaia, Sebastien Christy dugu, denek Xebax Christy deitzen duguna, 31 urteko informatikari injeniorea. Hau EUSKAL HERRIA BAI koalizioarekin abian zauku.



Xebax Christy joan den larunbatean prentsari aurkezten

Ordezkarri gisa, hunekin presentatzen da Martine Salla Beskoiztar kondu egilea.

Joan den larunbatean Baionako prentsaurrekoan bere motibapen eta nahikarien berri eman dauku Xebaxek. Ondoko egunetan hauen kanpañaren berri emaitako parada izanen dugu.

Aiherra

Herria du 20 janvier 2011

SOS Laborari-ren deia - SOS Laborari elkarteak galdatzen du bere laborari partaideer, urte sariak ahal bezain laster pagatzea Aiherrako Pascal Minjou Etxebazterrekoari edo J-Marie Dartaguiette Etxaikoari, berantiaz urtarilaren 31ko. Epearen errespetatzeak arduradunen lana errexten baitu, hobe beraz urrats horren egitea. Orroitarazten dute Aihertarrek jadanik letra edo gutun bat ukana dutela .

Inbido, iduki : mus xapelketa Attatean, ibiakoitzean hasten - Aurtengo mus xapelketa laster hastera doa. Orroitz izenak oraingo eman behar zirela, eta larunbat arratsetan, urtarilaren 22tik goiti mus haitadak Attatea ostatuan eginen direla. Izenen emaitako, deitu Attateira 05 59 29 64 23ra, edo Jaki Biscay (05 59 29 43 63) edo Pette Ospital (06 71 41 82 75), ez baita oraino berantegi. Parioa libro !!

Bihotzeko ostatuaren arrakasta, eta

toki eskasa - Bihotzeko ostatuekin behardunek kondatu beharko dutela negu huntan ere, ez da dudarik. Ostegunetan dute aste guziz hitzordua Aiherrako Denen Etxean, Ahurti eta Uztaritze artean, hots 30 herri desberdinetan bizi direnek. Astero, 15 bat nahiantek dute Denen Etxeko gela airosten eta biziarazten. Abendoko lehen astetan 141 behardun errezebitu baldin bazituzten, geroztik kopuru hori goitituz doa. Abendoko azken ostegunetan, 1042 apairu zerbitzatu zituzten, joan den urtean garai berean 709 zerbitzatu zituztelarik.

Oraino beharrezkoak diren Bihotzeko ostatu hauek beren lanetan tratatuak dira toki eskasaren gatik. Beren toki finkorik ez baitute, ostegunetan aldiro behar dute janaria tokiz aldatu, eta bururatzean sahetseko gela batetan metatu. Harat hunat hauk trabagarriak baitira denentzat, arazo hunen kondutan hartzea galdegiten dute hautesier. Entzunak izan ditela !